

EZBEHAR IZUGARRIA IZAN DUTENEI

LAGUNTZAK EMATEKO ARAUAK

EUSKADIKO DEMARKAZIOA

2004ko abendua

1.- HELBURUAK

Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoko Euskadiko Demarkazioak ezbehar izugarriren bat izan duten eta, ondorioz, egoera ekonomiko larrian gelditu diren elkargokideei edo horien eskubidedunei laguntzak ematean nola jardun behar den arautu nahi du arau hauen bidez.

Arau hauen ondoreetarako, ezbehar izugarriak dira:

- Elkargokidea hiltzea.
- Elkargokidea baliaezintasun total edo erabatekoarekin gelditzea.
- Istripu baten zioz lanerako iraupen luzeko ezintasun iragankorra izatea.
- Zuzendaritza Batzordeak ezbehar izugarritzat jotzen duen beste edozein kasu.

Gerta daiteke aseguruak ez betetzea onuradunen hil edo biziko beharrizanak edo, horiek betetzeko denbora luzea igarotzea eta ondorioz likidezia arazo larriak sortzea.

Hori dela eta, arau hauek bi ataletan bereiztu behar ditugu:

- a) Beste erakunde batzuen ordainketak atzeratzeagatik eman beharreko aurrerakinak.
- b) Itzuli beharrik gabeko laguntzak.

2.- KASU BIETAN ESPEDIENTEA HASTEKO TRAMITEAK

Espedientea hasteko nahikoa izango da jarraian zehazten denetako batek Demarkaziora idatzizko eskabidea bidaltzea:

- a) Laguntza behar duen elkargokideak edo bere eskubidedun batek.
- b) Zuzendaritza Batzordeko kide batek.
- c) Elkargokide bik.

Eskabidean laguntza zertarako behar den azaldu behar da, baita zein zenbateko behar den eta noizko behar izango den ere; horrekin batera,

elkargokidearen edo bere eskubidedunen egoera ekonomikoari buruzko txosten bat aurkeztuko da eta, eskabidea aurrerakina lortzeko bada, zenbatekoa nola itzuliko den azalduko da.

Gai hori Zuzendaritza Batzordeak egingo duen hurrengo bilkurako aztergaien zerrendan sartuko da edo, bilkura dagoeneko deitu bada eta laguntza premiazkoa bada, eguneko aztergaien zerrendatik kanpo sartuko da.

Eskabidean ez badira ematen Zuzendaritza Batzordeak kasua baloratzeko beharrezkoak dituen xehetasunak, lantalde bat izendatuko da; lantaldea batzordeko hiru kidek osatuko dute eta, honek, 20 eguneko epean hurrengo bilkuran eztabaidatu behar izango den txostena landuko du.

3.- BESTE ERAKUNDE BATZUEN ORDAINKETAK ATZERATZEAGATIK EMAN BEHARREKO AURRERAKINAK.

Itzuli beharreko aurrerakina eskatzen denean, hurrengo baldintzak bete behar izango dira:

- Gehienez 12.000 €-ko laguntza emango da.
- Ez du interesik sortuko.
- Beste erakundeen ordainketa jaso eta berehala itzuli behar izango da laguntza hau, zenbatekoa eman denetik beranduen 18 hilabetera.

Jasotzaileak ordainagiri bat sinatu behar izango du, Zuzendaritza Batzordeak ezartzen duen itzulketarako epea betetzeko konpromisoa hartuz.

4.- ITZULI BEHARRIK GABEKO LAGUNTZAK

Itzuli beharrik gabeko laguntza eskatzen denean, hurrengo baldintzak bete behar izango dira:

- Gehienez 12.000 €-ko laguntza emango da
- Zuzendaritza Batzordeko kideen bi herenak onetsi behar izango du gehiengoz laguntza hori.
- Ordainketa zati baten edo batzuetan egingo da, Zuzendaritza Batzordeak onetsitakoaren arabera.

- Jasotzaileak, jaso duen zenbatekoaren ordainagiri bat edo batzuk sinatu behar izango ditu.

5.- ZUZENDARITZA BATZORDEAREN ESKUMENAK

Arau hauetan ezartzen diren laguntzei dagokienez, Zuzendaritza Batzordeak honako eskumen hauek izango ditu:

- Eskatutako laguntzak onetsi edo ukatuko ditu, beste kasuren batean eredutzat hartu gabe.
- Laguntzen gehieneko zenbatekoak aldatuko ditu, bizitzaren kostuak gomendagarritzat jotzen duenetan.
- Kasu oso berezietan, gehieneko mugak gainditzen dituzten laguntzak emango ditu, aho batez onesten bada.

6.- ARAU HAUEN PUBLIZITATEA

Zuzendaritza Batzordeak arau hauek onetsi ondoren Demarkazioko elkargokide guztiei bidaliko zaizkie, horien berri izan dezaten. Halaber, izena ematen duen edo Euskadira etorriko den elkargokide berriari ere emango zaizkio.